

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2011KO IRAILAREN 2AN EGINIKO OHIKO BATZARRARI
DAGOKION AKTA.**

Errenteriako udaletxean, 2011ko irailaren 2ko 12:30 zirela, lehenengo deialdian eta Julen Mendoza Perez alkate jaunaren (O.E. BILDU) esanetara, ondoko zinegotziak elkartu dira:

- Luis Maria DIEZ GABILONDO
- Iruñe BALENCIAGA ARRESE
- Jon TXASKO ORGILLES
(Guztiak O.E. BILDU taldekoak)
- Jose Manuel FERRADAS FREIJO (EE)

Ez dira etorri, baina ezinetorria adierazi dute Miren Alazne Korta Zulaika eta Garazi Lopez de Etxezarreta Auzmendi (O.E. BILDU).

Bertan dago, ekitaldiaz fede emateko, idazkari nagusi Francisco Javier LESCA EZPELETA jauna.

1. Batzarrak 2011ko uztailaren 11n eginiko ezohiko bilkurari dagokion akta irakurri eta onartzea, bidezkoa bada.

Idazkariak Gobernu Batzarrak 2011ko uztailaren 11n eginiko bilkurari dagokion akta irakurri ostean.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez,

E R A B A K I D U

- Onartzea 2011ko uztailaren 11n ezohiko Bilkurari dagokion akta.

2. 2007ko otsailaren 9an OBEVISA Obras Especiales de Vizcaya, S.A.ri Touring etorbideko 4an 9 etxebizitza eta zati batean 10 trasteleku dituen erdisotoko solairua eraikitze emandako obra-lizentziaren titularitate aldaketa, Nasipa, S.M.k eskatuta.

Aurrekariak

2007ko otsailaren 9an OBEVISA, OBRAS ESPECIALES DE VIZCAYA, S.A.ri obra-lizentzia eman zitzaion Errenteriako Touring etorbideko 4an 9 etxebizitza eta zati batean 10 trasteleku dituen erdisotoko solairua eraikitze.

2010eko maiatzean Udalak partzela horretan zegoen dorre-garabia desmuntatu eta kentzeko exekuzio subsidiarioari ekin zion, 8.712,99 € ordainduta (BEZa barne) eta gaur egun arte ezin izan die kargu hori interesatuei egotzi.

2011ko abuztuaren 3an, 8847 erregistro zenbakiarekin, Iñigo de la Pazek, NASIPA S.M.ren izenean, aipatutako lizentziaren titularitatea aldatu eta bere izenean jartzeko eskatu zuen.

2011ko abuztuaren 9an Ramón Ruiz de Mendoza udal arkitektoak aldeko txostena eman zuen.

Zuzenbide oinarriak

- 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoru eta Hirigintzari buruzkoa (art.207)
- 1/92 Legegintzazko Errege Dekretua, ekainaren 26koa, Lurzoruaren Araubideari eta Hirigintzaren Antolamenduari buruzko Legearen Testu bategina (242. art.)
- Hirigintza Diziplinari buruzko Erregelamendua (1. art.)
- Errenteriako Udaleko Alkatetzako Dekretua, 2011ko ekainaren 28koa, Alkatearen eskumenak Tokiko Gobernu Batzarrari ordezkatzeari buruzkoa.

Alkateak proposatuta,

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez,

E R A B A K I D U

1.- **Onartzea** NASIPA S.M.k 2007ko otsailaren 9an OBEVISA OBRAS ESPECIALES DE VIZCAYA, S.A.ri Errenteriako Touring etorbideko 4an 9 etxebizitza eta zati batean 10 trasteleku dituen erdisotoko solairua eraikitzeke emandako obra-lizentziaren titularitate aldaketa egiteko egindako eskaera. Edonola ere, ordura arteko baldintza guztiak bete eta gainera **ondorengoa bete beharko du:**

Obrak ezin izango dira hasi Udalari 8.712,99 euro ordaindu arte, hain zuzen dorre-garabia desmuntatu eta kentzeko lanek izan zuten kostea.

2.- Lizentziari dagozkion udal zergak **ordaindu beharko dira.**

3.- Hirigintzako Informazio-batzordeari honen berri ematea.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, presidenteak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 12:40 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut Erkidego Autonomoko paper ofizialean, _____zenbakitik _____ra, eta nirekin batera Alkateak sinatu du. Egiaztatzen dut.